

...eta

# kittó!

918 zkia.  
2015-11-6

## Sanblas inoiz baino zuriago



### Recalde

Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

**Kirurgia**

- Miopia
- Kataratak
- Presbizia

**Begi lehorraren tratamntua.**



Izena eman eta bidaiatu taldean. Irteerak Euskal Herriko herrietatik. Eskaintza jende eta adin guztiarentzat. Egin zure erretserba zuzenean telefonoz: 937939455; edo e-mailez: comercial@viatgespoblenou.com. Espezialistak gara taldeetan, 18 urte daramatzagu Ipuruako Jubilatuen Etxeko bidaiak egiten eta hemen aurkezten ditugu atzerirako gure eskaintzak. Kontsultatu beste irteera batzuk.



## SUITZAKO ALPEAK

1. eguna: Elkartzea jatorrizko herrian, trasladoo aireportura eta irteera Genevarantz
2. eguna: Montriond - Linderets - Gorges du Pont du Diable
3. eguna: Annency
4. eguna: Chamonix - Montblanc
5. eguna: Geneva - Yvoire
6. eguna: Gruyère - Lausanne - Leman lakua - Evian
7. eguna: Morzine - Jatorria

### PREZIOAN SARTZEN DA:

- Luxu handiko autobusa eskura 7 egunetan
- Jatorritik helmugaraino hegaldia, joan-etorria
- Etxetik aireporturainoko trasladoak
- 7 egun / 6 gaueko egonaldia Morzineko 3\*\*\*-etako Le Crêt hotelean
- Mantenu osoko erregimena ur eta ardoaren doako edanarekin
- Bidaia-asegurua
- Egitarauan adierazitako txango guztiak
- Zergak eta B.E.Z. barne
- Bazkaria Genevako jatetxean hara heltzean
- Bazkaria Annecyko jatetxe entzutetsuan
- Bazkaria Chamonix-eko jatetxean
- Bazkaria Genevako ingurunekeo jatetxean
- Bazkaria Lausanneko jatetxean
- Ibilaldia itsas-ontzian Leman lakutik barne
- Mont Blanc-eraPREC igoera
- Sarrera Gruyèreko gazta fabrikara
- Sarrera les Gorges du Pont du Diablera
- Zergak eta B.E.Z. barne
- Egun erdiz gidari ofiziala Genevan eta Annency-n
- Agentziako gidari laguntzailea zirkuitu osoan

19,00 EUROKO BANAKAKO GEHIGARRIA  
LAGUN ETA GAU BAKOITZEKO

**PREZIOA**  
1.165 €  
lagun  
bakoitzeko

**DATAK AUKERAN**  
APirilAREN 12tik 18RA  
MAIATZAREN 3tik 9RA  
EKAINAREN 14tik 20RA



## OIHAN BELTZA

1. eguna: Elkartzea jatorrizko herrian, trasladoo aireportura eta irteera Stuttgart-erantz
2. eguna: Strasbourg bisitatuko dugu
3. eguna: Garagardotegi tipikoa - Feldberg
4. eguna: Triberg - Gutach - Schonach
5. eguna: Constanza lakua, Rhin-eko ur-jauziak
6. eguna: Titisee - Freiburg
7. eguna: Itzulera aireportura eta jatorrizko puntura heltzea

### PREZIOAN SARTZEN DA:

- Luxu handiko autobusa eskura 7 egunetan
- Jatorritik helmugaraino hegaldia, joan-etorria
- Etxetik aireporturainoko trasladoak
- 7 egun / 6 gaueko egonaldia ingurunekeo hotel tipikoan, Titisee lakuaren inguruetan
- Mantenu osoko erregimena ur eta ardoaren doako edanarekin
- Agentziako gidari laguntzailea zirkuitu osoan
- Bidaia-asegurua
- Egitarauan adierazitako txango guztiak
- Bazkariak Triberg, Constanza lakua eta Strasbourg-eko ingurunekeo jatetxeetan
- Sarrera Garagardotegi tipikora, bazkaria barne
- Igoera telekabinan barne
- Ibilaldia itsas-ontzian Titisee lakutik
- Ibilaldia itsas-ontzian Rhin-eko ur-jauzietatik
- Sarrera Mainau irlara, Constanza lakuan
- Sarrera Vogtsbauernhof Museora
- Egun erdiz gidari ofiziala Strasbourg-en eta Freiburg-en
- Zergak eta B.E.Z. barne

16,00 EUROKO BANAKAKO GEHIGARRIA  
LAGUN ETA GAU BAKOITZEKO

## OIHAN BELTZ ZIRRARAGARRIA

**DATAK AUKERAN**  
EKAINAREN 22tik 28RA  
EKAINAREN 29tik UZTAILAREN 5ERA  
UZTAILAREN 6tik 12RA

**PREZIOA**  
1.114 €  
lagun  
bakoitzeko

## ASTEAN ESANAK

"Paleolito garaian zintzotasunaren kulturaren sartu zirenak nagusitu ziren Eurasia osoan eta gaur egun oraindik zein dira herrialde aberatsenak? Zintzoenak? Zergatik? Zintzotasuna delako elkar hartuta ibiltzeko oinarritzko baldintza eta elkar hartuta indar handiagoa dugulako. Zintzotasun aldetik euskaldunok txapeldunak gara: hor dugu frontoietako apustu-sistema, soziedade eta ordainketa-sistema"

(JUAN INAZIO HARTSUAGA, ANTRÓPOLOGOA)

"Champions-ean Espainiako taldeak Erresuma Batukoak baino urrutirago heltzen dira Espainian beranduago oheratzen direlako. Goiz jaikitzen diren kirolariak eguerdian errenditzen dute gehien; berandu oheratzen direnek, gauean. Horko aldea errendimenduan %1ekoa dela? Gutxi izanda ere, atleta baten kasuan urrezkoa irabaztea edo laugarren postuan geratzea esan nahi du horrek"

(ROLAND BRANDSTAETTER, ZIENTZIALARIA)

"Agintariak, batzbeste begiratuta, ez dute talentu berezirik agintzeko. Duten talentu berezi bakarra da boterea erdietsi eta horri eustea. Horregatik, zoritxar guztiak gaizkile handien jukutria eta azpijokoei eransten bazaie ere, ez gara konturatzen zenbateraino den haien ergeltasunaren ondorio"

(CARLES CASAJUANA, IDAZLEA)

"Ez dago delinkuentziarik Laosen. Mugikor bat taberna batean ahaztuta lagatzen baduzu, bihar ziu han egongo dela, ez dizu inork lapurtuko. Hori bai, zuk norbaiti belarria moztuz gero, bihar ez duzu belarririk edukiko"

(ROBER GUTIERREZ, FOBALLARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KIÑU BATEN.- Berehala, bapatean. "Bere partia jaso ebanian, kiñu baten hutseratu zittuan bere ondasunok".

KIRIBIL.- Bihurria. Erderazko 'espiral'. "Garri kiribilla eban kaztaña arbola zahar harek".

KIRIKIXO.- Kirikinoa. "Kirikixuak ixa galduta dira gure lurretan". Umore txarreko, zakar, ez-atsegin, zentzu figuratuan. Gaztelarazko 'antipático'. "Ondo ipiñittako izena hiri Kirikixua! -Baita hiri be Moskatela!".

## eskutitzak

### UBITXAKO IGOGAILUAN EZ AL DAGO LEHENTASUNIK?

Urtarrilaren 16an inauguratu zen Ubitxako igogailua. Egia da, inauguratu zutenetik, mugimendu asko duela. Beti dago etengabe gora eta behera, eta hori oso ondo dago, horretarako eraiki delako. Baina normala al da umearen aulkiairekin 15 minutu zain egotea igogailuan gora eta behera egiteko? Normala al da sasoiko dagoen jen-

deak, ume-karroarekin dagoen norbaiti pasoa eman eta oinez igo beharrean, igogailua mutur aurrean lapurtzea? Nazkatuta nago, igogailua osasuntsu dagoen eta pisurik ez daraman jendez beteta ikusteaz! Horrelako kasuetan ez al dugu lehentasunik?

I.F.U.

### MILA ESKER, LAGUN TALDEA!!!

Aurreko larunbatean, hilak 24, **Desmadre Tours** musikalak 2015eko bigarren ekitaldia izan zuen, eta **Lagun Taldekoek**, beti bezain apal, aditzaera eman ziguten 25 urte zeramatzatela lanean desgaitasun psikikoa duten pertsonak eta euren familiak laguntzen.

Aldatze Ikastetxeak izan du Lagun Taldea osatzen dutenekin lanean aritzeko zioria, eta azpimarratzekoa da heziketa prozesuaren osagarri borobila izan dela beti. Nabarmentzekoak dira, besteak beste, boluntarioek jasotzen duten abegia, egindakoa-rengatik -handia edo txikia izanik- izaten duten esker ona, baita norberaren gaitasun artistiko zein solidario edo enpatikoak garatzeko aukera ere.

Jakin badakigu talde sendoak sustatzen duela ekimena eta laguntzaile ugari duela lana borobil-

tzen. Eta guztiek interesmuin berbera dutela jomugatzat: Lagun Taldea osatzen duten benetako protagonistei laguntza ematea eta mesede egitea.

Askotan galdetu diogu geure buruari egiten duten lanak eta batez ere egiteko duten erak zergatik ez duten arrakasta handiagoa. Eta arrazoiak euren interes-eza eta eskuzabaltasuna direlakoan gaude. Izan ere, ez dute inolako interesik agertzeko, izen-datuak izateko, euren zerbitzuengatik merezi duten aitortza jasotzeko. Guk, ostera, gaurkoan, ikusgabetasun horri ez-ikusia egin, eta egiten duten lana eta jarrera eskertu nahi ditugu lerro hauen bidez.

Lagun Taldea, jarraitu bide beretik eta bizi dugun gizarte honi, aniztasunari tokia egiteko gaitasuna duela gogorazi iezaiozu. Mila esker!!!!

MARISABEL ALBIZU (ALDATZEKO ZUZENDARIA)



Euskara Elkarteak

**ARGITARAZTZAILEA:** ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.  
**Astekararen E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /  
publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus  
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.  
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.  
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez  
**BANAKETA-ARDUADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).  
**COPYRIGHT-A:** ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679  
("...eta kito!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



*Goixan sanblas lehiaketia irabazi daben Bolunburu sarixa jasotzen. Azpixon, barriz, domekan opillak zelan egin ikasteko egindako taillarrian parte hartu eben batzuk.*



## Alberto Bolunburu, sanblasak egitten txapeldun

Bederatzi lagun animatu ziran martitzenian Arrate Kultur Elkartearen eskutik egin zan San Blas opillen lehiaketan parte hartzera eta, Margari Olañeta eta Juana Mari Ezker epaimahaikidiak sanblas guztiak probau eta gero, sarixa Alberto Bolunburu Garateri emotia erabagi eben. Euskal Herriko produktuekin

osatatuko otar edarra jaso eban irabazliak azaldu ebanez, sanblasa "amak erakutsitako moduan" egin eban eta, "beraz, meri-

tuaren zati haundi bat amarena" eida. Lehiaketia baiño lehen, aurreko domekan sanblasak egitten ikasteko Kulturalak antolatu eban ikastaruak aurreikuspen guztiak gaindittu zittuan. Antolatzailliak esan deskuenez, "talde bi osatu genduzen, bata hogeit lagunekin eta bestia hamaseirekin eta gitxienez beste horrenbeste toki barik geratu ziran. Gaiñera, izena emon barik be egunian bertan agertu zanik be egon zan. Taillarrek aurrekusten ez genduan demaseko arrakastia euki dau".

## Eibartar mordua sanblasak bedeinkatzen

Martitzenian, San Blas egunian, herriko eleiza guztietan meza berezixak egin ziran opillak bedeinkatu nahi zittuenak horretarako aukeria eukitzeko eta, urtero lez, danetan jende mordua alkartu zan. San Andres elizara juan ziranetako askok, gaiñera, pareko eskulturekin erretratua etaratzeko aprobe txau eben. Urkizu eskolako umiak, bestalde, urteroko ohitturiari jarraituta Karmengo Amaren elizan bedeinkatu zittuen sanblasak, gurasuak eta beste nagusi batzuk lagunduta.



*Kaleetan Kantuz.*


## Herriko taldiak santaeskian

Eguaztenian botatako elurrak eta egitten eban hotzak ez zittuan santaeskian urten ziran taldiak kikildu. Makilla esku batian eta guardasola bestian hartuta, aurreikusittako planari jarraitu zetsen Eibarko Sare-kuak eta Amaña, Ipurua eta erdialdian kantuan ibilli ziran. Sostoa abesbatzakuak be Santa Agedari kantatzen ibilli ziran, Ego-Gain kalia hasi eta Urkizuraiño. Eta Kaleetan Kantuz abesbatzakuak Urkizun ekin zetsen santaeskian.



*Urkizuko ikasliak Karmengo elixan.*

*San Andres bete-beteta egon zan 11.00etako mezan.*



*Sostoa Abesbatza.*



*Eibarko Sare.*

## Debarrenako eskintza FITUR azokan

Aurten be Debarrenako eskintza turistikua Madrillen egin barri daben FITUR azokan eza-gutzera emon dabe, Euskadiko stand-aren barruan. Bestiak beste, Euskal Kostaldeko Geoparkari lototutako programak, proposamen turistikua, eskualdeko herrixen inguruko informaziua, ostatu eta zerbitzuen gida, Produktu Gastronomikuaren Kluba osatzen dabene gidaliburua eta BTT ibilbidiak presentatzeko aprobe txau eben azokia.

*Ulazia, Garitano, Urkiola eta Novoa.*



Debarrenako ordezkariak FITUR-en.


## Ondo egindako lana Armerixan

Aurreko astian Gaizka Garitano Eibar foball taldeko entrenadoriak eta Joseba Urkiola Euskal Telebistako kirol kazetarixak hitzaldixa emon eben Armerixa Eskolan, "Ondo Egindako Lana" goiburuari jarraituta eskoliak abiarazi daben programiaren barruan egin dan lehelengo saiuan. Solasaldira juandakuak "ondo egindako biharraren" adibide garbixa dan taldiaren "sekretuak" eta beste kontu batzuk hizlari bixen ahotik entzuteko aukera bikaiña euki eben.

## autuan

### KANPOSANTUA ITXITA

Udalak atzo aditzera emon ebanez, "eguraldi txarra dala eta, eta kanposantura juaten den jendiaren segurtasuna zaintziarren", domekara arte bisitan doiazenendako itxitta egongo da. Halanda be, lurperatziak betiko martxan egitten segiduko dabe.



### ETXEBERRIA DISEÑADORIA

Bixar, 20.00etan Roberto Lopez Etxeberria diseñadoriak "Roots", 2015/16-rako udazken / negurako proposamen bilduma barrixa aurkeztuko dau MBFWMadrid moda pasarelan.

## INMOBILIARIA MUNICIPAL EIBARRESA, S.A.

Enpresa honek BOE (Babes Ofizialeko Etxebizitza) bi jartzen ditu salgai Asola Igartzako 10ean.

Adjudikazio-baldintzak hartzeko IMESAren bulegotik pasatu, Eibarko Udaletxean, otsailaren 2tik aurrera, 9etatik 14ak arte.



**Eskabideak aurkezteko AZKEN EGUNA: otsailaren 27a, 13.00etan.**

Eibarren, 2015ko otsailaren 1ean



Funeraria Ehortzete  
**Mugica**

### EIBAR



Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

### ELGOIBAR



Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi

asteko  
330.000  
datua

euro balixo daben 17 proiektu onartu detsez Bildukeri 2015eko aurrekontuaren negoziatziñuan. Atzo zihzteke eguan, baiña iza seguru datorren astian egingo dabe prespuetua onartzeko plenua.



## Jokin Bildarratzen hitzaldixa

Eibarko EAJ-k antolatuta, gaur 19.00etan "Euskal Herriko egoera politikoa" izenburuko hitzaldixa emongo dau Jokin Bildarratz Tolosako alkate ohi eta EAJ-ko senadoriak Batzokixan. Bestalde, domekan 11.30xetan Gipuzkoako hautagai-tzaren aurkezpena egingo dabe jeltzaliak Untzagan. Ekitaldixan, bestiak beste, Markel Olano, Joseba Egibar eta Iñigo Urkullu lehendakarixak hartuko dabe parte.



## Kantu-kalejira bixar arratsaldian

Hilleroke martxiari jarraituta, Kaleetan Kantuz abesbatzakuak eta Musika Eskolakuak kantu-kalejira egingo dabe bixar arratsaldian, 19.45xetan Ego Gain kalia, El Corte Inglesaren parian hasitta. Jendia eurekin batera kantatzera animatu ezkeru, edarto hartuko dittuela diñue.

## C hepatitisari buruzko hitzaldixa

Datorren martitzenian (10ian), 19.00etan hasitta, "Evitables. Doce muertes diarias por Hepatitis C" hitzaldixa eskinduko dabe Portalean gaixotasun horrek Kaltetutako Plataformako ordezkariak. Ekitaldixa Juan Sanchez Vallejo mediku psikiatriak aurkeztuko dau eta Mario Cortes plataformako presidentia eta Angeles Fernandez diruzaiña izango dira hizlarixak. Ezkerra Berdeak babesten daben Ezkergunea kultur alkartiak antolatu dau ekitaldixa.



## Gerraren interpretaziño zentrua zabalik

Eguraldixak eragindako arazuak gaindittuta, aurreikusitta eguan moduan zapatuan inaugurau eben Gerra Zibillaren interpretaziño zentrua Arraten. Zentrua preparatzen biharrian jardun daben Jesus Gutierrezek eta Jose Luis Valenciagak han batu dittuenen gaiñeko presentaziñua egin eben ekitaldixan. Zentruak atiak zabaldu barri dittuala eta, ezagutzera emoteko asmuarekin bisita gidatuak be antolatu dittue (lehelengua bixar egittuea zan, baiña eguraldixa dala eta martxuaren 14ra atzeratzia erabagi dabe) eta, talde guztiak bete diranez eta daguan interes haundixa ikusitta, arduradunak martxotik aurrera bisita gehixago antolatu dittuela emon dabe aditzera. Edozelan be, bisitarako toki barik geratu diranak interpretaziño zentrua bardin-bardin ikusteko aukeria eukiko dabe, bisita egunetan, goizeko 10.00etatik 14.00xetara.



## Estetika Azokia asteburuan

Zapatuan eta domekan gure herrixan estetika arluan daguan eskintza zabala bertat bertara ezagutzeko aukeria eukiko dogu, Untzagan, karpa barruan zabalduko daben Estetika Azokari esker. Bixar egun osuan, 10.30xetatik 20.00etara egongo da martxan eta domekan, barriz, bakarrik goizez, 10.30xetatik 14.00xetara.



# Herria zuriz margotu du...



Aspaldiko partez, elurrak mendi-tontorrek eta etxeetako teilatuak zuritzeaz gain, kaleak ere kolore zuriz margotu ditu oraingoan. Eguraldiaren inguruko aurreikuspenak bete egin dira eta eguazten goizean esnatzean herria zuri-zuri aurkitu genuen. Elurrak gure herria itxuraldatu eta, argazkietarako askoz politagoa ipintzeaz haratago, buruhauste bat baino gehiago eragin digu eta oraindik ere gaiko alerta laranja aurreikusi dute meteorologia eta larrialdi zerbitzuek. Elurrari lotutako buruhauste horiei, gainera, aurreko asteburuan botatako euriak eragin zituen arazoak gehitu behar dizkiegu.

Izan ere, **aurreko asteko barixakuan euria** bota eta bota hasi zen eta horrela, euripean eman genuen asteburu osoa. Euriaren ondorioz barixakuan bertan, arratsaldeko lehen orduan, **lur-jausia** gertatu zen saihesbidean, Barrena kalearen parean. Handik ordu gutxira toki berean zuhaitz batzuk errepidera erori eta, bidea garbitu arte, saihesbideko trafikoa eten egin zuten bi noranzkoetan. **Zapatu goizean**, berriz, beste luizi batek **Arratera doan errepidea moztea** eragin zuen. Horrekin batera, zapatu goizaldeko txingorrek herriko hainbat auzotan lur-jausi txikiak eragin zituen eta, besteak beste, fatxada zatiak kalera bota zituen.

Eta **eguazten goizean** bota zuen elurrak hainbat arazo sortu zitu gure herriko kaleetan, batez ere goiko auzoetan. Hasteko, auzo horietara joateko **Udalbus zerbitzua bertan behera** laga behar izan zuten eta bestela ere arazo ugari izan zituzten Urkin, Amañan, Azitaingo industrialdean edo Unberako igoeran ibili ziren gidariek. Hori ikusita, eta eguraldia hobetu bitartean, udalak **behin-behineko aparkalekuak prestatu ditu Txaltxa Zelai-**

**ko parkean eta Amañako pasealekuan**, gidariek goiko auzoetara joatea saihesteko asmoz. **Txonta auzoa**, bestalde, eguazten arratsaldeko lehen orduetan **argindar barik** geratu zen, Iberdrolak arazoa konpontzea lortu zuen arte. Brigadako beharginak eta kaleak garbitzeko udalak kontratatu duen enpresakoek goizean goizetik horrelako arazoei aurre egiteko beharrez jardun zuten eta egunotan ere horretan dabilta. Eta **udalak** elurrari aurre egiteko aholku eta bestelakoekin **bandoa** egin eta kaleetan ipini du, herriarrek irakurtzeko.

Elurrak eta eguraldi eskasak **Eibar foball taldeko jokalariei** ere eragin die: Ipuruia zelaia zuri-zuri geratu zen eta suhiltzaileak eraikitzen ari diren gradan ura botatzen ibili ziren, badaezpada, elurraren pisuarekin behera ez jausteko. Eta atzorako Atxabalpeko lan saioa bertan behera lagatzea erabaki zuten, A Coruña-ra lehenago joan eta entrenamendua han egiteko.

## Hainbat jarduera bertan behera

Eguraldiak herri barruko zein inguruko errepideetan eragindako arazoak direla eta, aurreikusitako hainbat jarduera bertan behera geratzea eragin du: elurtea dela eta, besteak beste, atzo Untzagan egitekoa zen **Ikasenpresa azoka datorren asteko martitzenera**, otsailaren 10era, atzeratzea erabaki dute. Azoka iragarrita zegoen ordutegi berean, 10.30etatik 13.30etara egingo da eta, aurreikusitakoari jarraituta, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 700 ikaslek hartuko dute parte. Horrekin batera, bihar **Eibarko Gerra Zibilaren interpretazio zentror**a iragarrita zegoen bisita gidatua **bertan behera** laga eta **martxoaren 14an** egingo dela eman dute aditzera.



## Ekintzaileentzat prestakuntza eskaintza zabala

Debegesa garapen agentziak, dalarekin elkarlanean, bereziki ekintzaileengan pentsatutako prestakuntza eskaintza zabala osatu du otsailerako. Datorren astean hasita, ekintzaileentzat bereziki erabilgarriak diren hainbat gai jorrazteko zortzi tailer emango dituzte, "Ekiten lagundu" egitasmoaren baitan. Tailerrak Portalean egingo dira, astelehen, eguazten eta eguen goizean, eta doakoak izango dira. Lehendabiziko bi tailerrak datorren astelehenean, hila-

ren 9an eskainiko dituzte, bata bestearen jarraian eta joan nahi duenak aurretik izena eman beharko du, ekintzaile@debegesa.com helbidera idatzita edo 943820110 telefonora deituta.

Debegesatik adierazi dutenez, "egitasmoaren helburua eskualdeko ekintzaile zein etorkizuneko profesionaleri gaitasun eta trebetasun berriak es-



Otsaileko eskaintzaz gain, astero autoenplegu tailerrak daude.

### EKITEN LAGUNDU TAILERRAK

- Otsailak 9, astelehena: "Nola sortu zure negozio-idea" (09.30-12.30) eta "Frankiziak, negozioen eskualdatzeak... Ezagutu enpresa bat sortzeko beste modu batzuk" (12.30-13.30).
- Otsailak 12, eguena: "Canvas eredu. Deskubritu zure negozio eredu" (09.30-13.30).
- Otsailak 16, astelehena: "Finantzazio-plana. Errentagarria izango al da zure negozioa?" (09.30-13.30).
- Otsailak 18, eguaztena: "Marketing plana. Nola lortu zure lehen bezeroak" (09.30-13.30).
- Otsailak 23, astelehena: "PFEZ eta BEZ. Ezagutu zure fiskalitate betebeharrak" (09.30-12.30) eta "Eredu juridikoak" (12.30-13.30).
- Otsailak 26, eguena: "Aurkezpen publikoak: Zure enpresaren aurkezpena arrakastatsu egiteko tresnak" (09.30-13.30).

kuratzeko aukera ematea da. Eskualdeko ekintzaileei zuzendutako egitarauak urte osoan izango du jarraipena, baina otsailaren Eibarren, Portalean egingo dira saioak, udalaren elkarlanari esker".

Astelehenetik aurrera eskainiko dituzten tailerretan parte hartzen dutenek hainbat gai jorrazteko aukera izango dute: negozio-idea nola landu, enpresa bat sortzeko aukera desberdinak (frankiziak, eskualdatzeak...), finantzazioa eta errentagarritasuna, fiskalitate betebeharrak, marketing plana eta beste hainbat. Antolatzaileen berbetan, "azken batean, horrelako egitarau zabala prestatzean ezagutza eta erreminta berriak ekintzaileei gerturatzea bilatzen dugu".

### Martitzenero "Autoenplegu tailerra"

Bestalde, Debegesak eskaintzen duen enpresa proiektu berrien sustapenerako zerbitzuak enpresa abian jarri nahi duten herritarrei doako aholkularitza eta informazioa ematen diela gogorarazi nahi dute. Horrekin batera, astero, martitzenetan, 11.00etatik 12.00etara, "Autoenplegu tailerra" eskaintzen du dohainik, "idea bat aurrera eraman edo negozio bat martxan jartzeko asmoa dutentzat". Saio horietan negozio-idea abian jartzeko eman beharreko pausoak zeintzuk diren azaltzen zaie parte-hartzaileei eta, horrez gain, eskuragarri dauden laguntzen inguruko informazioa ere ematen diete.

## Arduinoari buruzko EibarLAB's

Armeria Eskolak Arduinoari buruzko EibarLAB's delakoa hartuko du otsailaren 21 eta 22an, Hirikiten elkartek antolatuta eta udalak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak babestuta. Ekitaldiaren helburua, Arduino hardware libreko plataformari buruzkoak herritarrei gertura-

tzea da eta, horretarako, maila bitan banatuta (batean nagusiak egongo dira eta bestean umeak) burutuko dute ekitaldia. EibarLAB's-en filosofiari jarraituta, ariketa ezberdinak egingo dituzte, oso modu arin eta ludikoan Arduinoari buruzko informazioa barneratzen joan daitezten.





Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte

# Kopina moda

f kopinamoda

San Agustin, 3  
943 204 181





**• tartak**

**• enkarguak**

**etxera**

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



**EÑAUT ELORRIETA, abeslaria:**

## “Deserriaren inguruko lan kontzeptuala egin dut”

*Eñaut Elorrieta Ken Zazpi taldeko kantariak bakarkako ibilbidea irekitzen duen lehen diskoa aurkeztuko du bihar Coliseoan, gaueko 22.00etan eskainiko duen kontzertuan. Olerki ugari sortu dituen deserriean oinarritutako bere konposizioak ekarriko dizkigu, berezko ukitu batez tindaturik. Zuzeneko ekitaldia zaindua eta berezia izango da, kantuen kalitateaz baliatuz entzulearen barruari hitz eginez. Bere deserritik gure erbestera.*



**- “Deserriko kantak” zure azken lana aurkeztuko duzu zapatuan. Zer adierazi nahi izan duzu lan horretan?**

Deserriaren inguruko lan kontzeptuala da, ezlekuan egotearen bueltan. Hainbat arrazoi izaten dira horretarako, politikoak tartean, eta hori ere izan dut presente. Ezin dugu ahaztu sozialki ere ematen dena: hor dago garai gordin hauetan bere herrian bazterketa soziala bizi duen jendea... Kanean nabaritzen den sentsazioa da etxe ez-jabetzeak puri-purian daudenean. Hortik kanpo, gure gizartean oso azkar bizi gara, gure gorputzetik aldentuta, gugandik urruti, deskonektatuta. Deserri intimo horretatik abiatuta hartu dut sor-kuntzarako bidea. Eta, Euskal Herriari erreparatuta ere, kuriositateak hemengo eta kanpoko idazleek sortutakora eraman nau, hainbat enfoke neureganatuz. Hor oinarritu dut diskoa.

**- Zelako emaitza jaso duzu ia bi urte dituen proiektu horri dagokionez?**

Oso gustora nago emaitzarekin. Badakit digestio geldoko gaia dela; ez dela gai samurra. Lan sakona da alde guztietatik begiratuta eta abestiak ez dira lehenengo kolpean sartzen diren horietakoak. Hasieratik hartu nuen lasai, jendeak horrela ikusi du eta kritikak babestuta sentitu dut nire burua. Kontzertu mordoa eskaini ditugu eta ongi-etorriak izan gara toki guztietan. Eta horrela dihardugu, indartsu.

**- Zure zuzeneko emanaldiak oso zainduta daudela diote. Berezkoa duzu hori edo ahalgin berezia egin duzu disko horrekin?**

Argi dut ahalegin konszientea izan dela. Lan honekin hasi nintzanean banekien horako abestiak ez zirela edozein lekutan ematekoak. Festa-giroa arrotza zaio disko honi, lasai entzuteko abestiak dira, hautatutako tokietan. Diskoak sortu nahi dudan girora garamatza.

**- Erosoago sentitzen zara bakarkako lanetan? Horrela bada, zergatik?**

Ez da erosoago egotearen kontua. Kontrakoa esango nuke: biluziago nago moduhonetan. Baina, kontraesankorra dirudien arren, baita indartsuago ere. Sentsazio arraroak ditut: deserriaren sentsazioak, musikak, arregloek, estetika... horretara bideratuak. Baina, ahultasunak ahultasun, oso indartsu aurkitzen naiz lortutako emaitzarekin.

**- Hitzek pisu handia dute diskoan, baina noizbaiten esan duzu poesia eta kantu-letrak ez direla hizkuntza bera...**

Hori horrela dela oso argi dudalako. Ez da irakurtzea, errezitatzea beste gauza bat da, bestelako informazioa kaleratzen duzu, melodia ere beste bat da. Ezin duzu orden bera erabili, ezin diozu luzera berdina eman. Nik lan bat jaso dut, idatzita dagoena... baina, nire ariketekin, musikarekin lagunduta, beste sentsazio batzuk transmititu nahi ditut. Aipatutako hitz horiek esanda ere, kontratzerakoan aldaketa bilatzen dut.

**- Zelan ikusten duzu gaur egungo musikaren egoera?**

Interes handiko gauzak egiten direla uste dut: estilo desberdinetako lanak, baina kalitate handikoak. Bizi dugun egoerak egia da ez duela askorik laguntzen, eta promotoreekin, udalekin... baldintza zailagoetan egin behar dugu lan. Denoi eskatzen zaigu egoera horretara moldatzea, eta asko ari gara mundu horretan. Dena dela, historia pisika bat aztertuta, gorabeherekin izan bada ere musikak beti egin du aurrera. Ingelesaren eragina ere badago, Ipar Europan kezkatuta daude horrekin... Ni oso sentsibilizaturago nago gure hizkuntzarekin eta adi euskeraren alde egiteko.

**- Musika duzu ogibide gaur egun, ezta? Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak, epe motzera begira?**

Bai, musikatik bizi naiz. Une honetan kantuak sortzen jarraitzen dut, bizi dudan deserri partikularrean. Hor ere askotan ezina sentitzen duzu, baina aurrera egin behar duzu... sukaldeko lan horrek hori eskatzen dizu. Prozesuaren une askotan sentitzen naiz kolokan, baina hortik pasata oso zintzoa izaten ahalegintzen naiz. “Deserriko kantak”-en azkeneko kontzertuak gabiltza eskaintzen, jira amaitu aurrekoak. Bestela, lasai hartu nahi dut, materiala sortzen jarraitu presarik gabe eta larregi estutu barik. Eta Eibarrera disfrutatzen noa, eta disfrutatzea. Betiko moduan, topera.

# KOKO-DANTZARIAK

## Otaola-Kiñarrako baserrietara bisitan

Bihar irtengo dira koko-dantzan eta koko-eskean, Kezka dantza taldearen ekimenez. Azken urteotako martxari jarraituta, goizean goizetik hasita egunaren zatirik handiena baserrikerriko baserri ibiliko da koko-marruen konpartsa eta arratsaldean, berriz, herriaren erdialdean erakutsiko dituzte euren koko-jantzi eta dantzak, nahi duten guztientzat zabalik egongo den kalejiran. Egun bakarrean Eibarko baserri guztietara ailegatzeko modurik ez dagoenez, urte bakoitzean horietako batzuetara joaten dira eta aurten Otaola- Kiñarra aldeko baserriak bisitatuko dituzte.



**Goizeko 08.30ean Merkatu Plazan egingo du lehen agerraldia koko-dantzen konpartsak**, hango postuetan dauden baserriarren aurrean. Ondoren, aurreko urteetan bezala, bi taldetan banatuko dira: "Batzuk Txontatik gorako bidea egingo dute oinez eta Mertzete, Iraegi, Areta eta Aretabeletxe baserriak izango dira lehenengo geltokiak. Hortik, mendi-pista bat hartu eta Altamira-erdikoa baserri-ira joango dira. Bertan egingo

dugu topo bigarren taldearekin eta hortik aurrera denek elkarrekin jarraituko dugu". Bien bitartean, bigarren taldeak Sautxitik gora, Irigorri baserrian egingo du lehen dantza saioa. Eta Iragorritik bidean aurrera eginda, Azitain aldeko Loiola, Egiguren, Ixxue, Azitaingo erretegia eta Txopen baserrietan geldituko dira. Altamira-erdikora ailegatu baino lehen Otaolaerrikoa eta Ipurua baserrietan ere geldituko dira.

Kezkatik azaldu dutenez, "bi taldeak Altamira-erdikora ailegatzeko garenean, bertan dantza egin eta oinez jarraituko dugu ibilbidea. Urki aldeko Altamira-behekoa eta Kantina baserriak bisitatuko ditugu ondoren eta, amaitzeko, Txonta aldera joango gara denak bat eginda. Han Lekamendi, Urkiditorre eta Bolingua baserrietan gelditu eta azken horrekin amaituko dugu lana".

### Koko-festa, baserrietatik kalera

Urtero lez, egunaren zatirik handiena baserri batetik bestera geratu barik ibiliko badira ere, iluntzean herriko erdialdean kalejiran ibiltzeko indartsu eta umoretsu egotea espero dute, **19.00etan anbulategiko parkean** batu eta kalejiran ibiltzeko asmoa dute eta: "Parkean elkartuko gara koko-konpartsa eta koko-festaren parte hartu nahi duten guztiak, eta Mauxitxa txarangak lagunduta

erdialdeko kaleetan ibiliko gara. Ekitaldi hau irekia da eta parte hartu nahi duten guztiak gonbidatu nahi ditugu koko-jantzi eta festan gurekin bat egitera". **21.00ak arte Toribio Etxebarria, Untzaga eta Calbeton** inguruan ibiliko dira.

### Eguen Zuri

Biharko ekitaldia datorren astean ospatuko den Eguen Zurirako giroten joateko primerako ariketa izango da, gainera. Izan ere, datorren asteke eguenean herriko ikasleak izango dira protagonista, bazkalostean egingo dituzten kalejira eta jaialdiekin. **17.00etan Jainaga eta Narbaizarekin kalejira egingo da, Urkizutik Untzagaraino.** Eta ordu berean hasiko da **Liskerren dantzaldia**, plazan ipinita dagoen karparen barruan. **19.00ak arte**, gainera, Astixak umeendako taile-rrak (ipuinetakako pertsonaien kareta, makillajea eta osagarriak) eskainiko ditu Untzagan.



Koko-dantzen konpartsak koko-festa eskinduko du arratsaldean herriko erdiko kaleetan. LEIRE ITURBE



# Arzak-eko menua soziedade gastro nomikuaren preziuan

*Otsaillaren 20xan hasi eta martxuaren 25era arte iraungo dau Eibarko Antzerki Jardunaldixetako 38. ediziñuaren programaziñuak. Egitarau horretan hogeitaz antzerki konpaiñia izango dira gure herrixan euren onena eskintzen, antolatzailliak "kalidadez betetako lanak" selekzionau dittuelako barriro be. lazkuaren tamaiñako aurrekontua izango dabe aurtengo Jardunaldixak, hau da, 176.000 eurokoa. Eta takillan 30.000 jasotzia kalkulau dabe; beste guztia patrozinatzaillieri eta erakundietako subenziñueri esker lortu da beste behiñ. Antzerkixa dastatzeko oindiok egun batzuk falta badira be, asteburu honetan hasiko da sarrereren aurrezalmenta: bixar goizeko 10.00etatik arratsaldeko 16.00ak arte, eta domekan eta astelehenian 10.00etatik 14.00ak arte. Zaletuok: hasi pilak kargatzen!*

**T**itularrian agertzen dan esaldixa erabili eban Juan Ortega Jardunaldixotako antolatzaillietako batek antzerki-zaliak dakan aukeria baloratzeko orduan. Betiko lez, ahalegin berezixa egin dabe bai Ortegak, bai Ricardo Martinek eta baita inguruko guztiak be Eibarrera mundu horretako onena ekartzeko. Aittatutako bixak izan ziran be, Miguel de los Toyos alkatiarekin batera, martitzenian udaletxian egindako antzerki jardunaldixetako aurkezpenian. Narruzko Zenezekueri urte osuan egindako lana eskertiaz gaiñera, alkatiak Txema Cornago gogorau nahi izan zeban beste behin: "Hirugarren urtia da bera barik, baiña juan jakunian jardunaldixak ez desagertzeko hartu genduan konpromisuari erantzunez, hónnek konsolidatzia be lortu dogu".

Juan Ortega jardunaldixetako alma materra urrutirago juan zan

oindiok, "kultura ikuspegittik, gaurku baillarako, Debabarrenako, urteko egun garrantzitsue-na dalako". Kultur eskintza horrek parekorik ez dakala azpimarratu eban "onena" ekartzeko



egindako ahalegiñak kontatziari ekiñ aurretik. Holan, Federico Luppi moduko artista haundixa ekartzia nabarmendu eban, "ezustian lortu dogulako". Ortegak garrantzixa emon zetsan be

Eibarrera etorriko diran euskerazko lau funziñuak "goreneko kalidadia" eskintzen dabela esaterakuan. Lan bitxixeri erreparatuta, Choni Flamenca konpaiñiaren lana aittatu eban, "haiñ eza-gunak izan barik, bi urte daroiez-eta batetik bestera mailla handiko lana erakusten". Laburbilduta, danak gomendatu zittuan anto-

latzailliak eta errekonozidu eban komediak tarte haundixa hartuko dabela oinguan, "umorezko gauza asko aukeratu dittugu-eta". "Las Bellas de Easo" lanian, gaiñera, Irene Hernando eibartarraren lana ikusteko aukera izango dogu, Gipuzkuako hainbat unibertsitateren artian alkarlanian sortutako komedia musikalian. Eta Unibertsitate Laboraletik urtendako Iñaki Miramon aktore haundixa jardunaldixetan izango da beste behiñ, oinguan "De mutuo desacuerdo" lanarekin, bi egunetan eskinduko dana.

## Zortzi estreifaldi Euskal Herrixan

Azken urtietako martxiari jarraituta, Untzaga plazan eta Torribio Etxebarria kalia egongo diran Giza Estatuen Erakusketa-ekin hasiko da programaziñua: 13. urtia da jarraixan Bartzelona-

**Martitzenian aurkeztu zittuen aurtengo jardunaldixak.**  
SILBIA HERNANDEZ

tik datozen antzezliak gure ka-  
liak alaitzen dittuela. Eta, ohi-  
kuarekin jarraitzeko, hitzaldi-so-  
lasaldixa izango da jardunaldi-  
xetako bigarren ekitaldixa: hor  
Miguel del Arco *"antzerkixak  
zertarako balixo daben"* argitzen  
ahaleginduko da hillaen 20xan.  
Handik zortzi egunera *"Misán-  
tropo"* bere lana ikusteko auke-  
ria izango dogu Coliseoan.

Aurtengo programaziñuan  
Euskal Herrixan estreñatuko di-  
ran zortzi lan ikusteko aukeria  
izango dogu: euskerazko bat,  
*"New Orleansko Cyrano"* Vaivén

taldiarena, haurrendako dana;  
eta *"Gala de la magia"* -lau mago  
txapeldunekin-, *"El reportaje"*  
-Federico Luppi aktoriarekin-,  
*"El hombre almohada"* -Martin  
McDonagh-ena-, Luis Piedrahi-  
taren monologua, Chema Carde-  
ñaren *"La puta enamorada"*, Jor-  
di Casanovasen kutsu politikoko  
*"Ruz-Bárceñas"* eta Grupo Mari-  
castañaren *"Ricardo III.a vs W.  
Shakespeare"*.

Haurrendako antzerkixari da-  
gokixonez, aittatutako *"New Or-  
leansko Cyrano"*-rekin (otsaila-  
ren 21ian) batera, *"El Cascanue-*



**Kukai dantza taldeak "Gelajauziak" ikuskizun ikusgarria ekarriko du Coliseora martxoaren 20an, ordubete iraungo duen lanarekin.**



**Vaivén Producciones taldeak haur antzerkia eskainiko du euskeraz otsailaren 21ean, "New Orleansko Cyrano" lanarekin.**


ces" lana eskinduko dau txo-  
txongilluekin Teatro del Templek  
martxuaren 14an, funtziño bixak  
5 eurotan. Prezio horretan ikusi  
ahal izango dira aktore unibertsita-  
riaren artian egindako bi fun-  
ziñuak be: Musikomeriaren *"Las  
Bellas de Easo"* eta Maricastaña-  
ren *"III"* lana. Bestelako lanen ar-  
tian, hamar 11 eurotan ikusi ahal  
izango dira eta beste zazpiren  
preziua 15 eurokua izango da.

Euskerazko laneri begiratura,  
aurrez aittatutako umiendako  
horrekin batera, beste hiru lan  
etorriko dira Eibarrera, danak be

Jardunaldixetako azken egune-  
tan: martxuaren 15ian Markeli-  
ñeren *"Makinista"*, 17xan Txalo  
Produkzioak konpainiaren *"Erdi-  
bana"* eta, jardunaldixekin amai-  
tzeko, martxuaren 25ian Tanttaka  
Teatroaren *"Barealdi magi-  
koa"*. Hor dago Kukai dantza tal-  
diak eskinduko daben *"Gelajau-  
ziak"* be: martxuaren 20ko lan  
horrek, dana dala, dantza dauka  
protagonista eta ez hizkuntza.  
Markeliñe Jardunaldixotako kla-  
sikua (25 urte baiño gehixago di-  
ra lehen aldiz parte hartu zeba-  
la) 70 miñutu iraungo daben ko-

DATA	ORDUA	EMANALDIA	TOKIA	PREZIOA
Otsailak 20, barixakua	17.00	<b>XIII. Giza estatuen Erakusketa - M.P.C.</b>	Untzagan eta T. Etxebarrian	
Otsailak 20, barixakua	19.00	HITZALDIA: <b>"¿Para qué sirve el teatro?"</b> MIGUEL DEL ARCO	Coliseoan	
Otsailak 21, zapatua	17.00	<b>New Orleansko Cyrano - VAIVÉN (haur antzerkia)</b>	Coliseoan	5 € euskeraz
Otsailak 24, martitzena	20.30	<b>Happy End - VAIVÉN PRODUCCIONES</b>	Coliseoan	11 €
Otsailak 25, eguaztena	20.30	<b>La gloria de mi mare - CHONI CÍA. FLAMENCA</b>	Coliseoan	11 €
Otsailak 27, barixakua	20.30	<b>Taitantos - CANDELARIA SUR</b>	Hezkuntza Esparruan	15 €
Otsailak 28, zapatua	20.30	<b>Misántropo - KAMIKAZE PRODUCCIONES</b>	Coliseoan	15 €
Martxoak 2, astelehena	19.00	<b>La Mejor Magia - CÍA. FÁBRICA DE MAGOS</b>	Coliseoan	15 €
Martxoak 3, martitzena	20.30	<b>El Reportaje - PROD. DEL CICLO "NUESTRO TEATRO"</b>	Hezkuntza Esparruan	15 €
Martxoak 5, eguena	20.30	<b>De mutuo desacuerdo - PENTACIÓN</b>	Coliseoan	15 €
Martxoak 6, barixakua	20.30	<b>De mutuo desacuerdo - PENTACIÓN</b>	Coliseoan	15 €
Martxoak 7, zapatua	20.30	<b>El hombre almohada - ILMAQUINARIO TEATRO</b>	Coliseoan	11 €
Martxoak 8, domeka	20.30	<b>¿Por qué los mayores construyen...? - EL ESPECTADOR</b>	Hezkuntza Esparruan	15 €
Martxoak 11, eguaztena	20.30	<b>La puta enamorada - EUROSCENA</b>	Coliseoan	11 €
Martxoak 13, barixakua	20.30	<b>Las Bellas de Easo - MUSIKOMERIA (unibertsitarioak)</b>	Coliseoan	5 €
Martxoak 14, zapatua	17.00	<b>El Cascanueces - TEATRO DEL TEMPLO (haur antzerkia)</b>	Coliseoan	5 €
Martxoak 15, domeka	20.30	<b>Makinista - MARKELIÑE</b>	Hezkuntza Esparruan	11 € euskeraz
Martxoak 17, martitzena	20.30	<b>Erdibana - TXALO PRODUKZIOAK</b>	Coliseoan	11 € euskeraz
Martxoak 19, eguena	20.30	<b>Ruz-Bárceñas - TEATRO DEL BARRIO</b>	Hezkuntza Esparruan	11 €
Martxoak 20, barixakua	20.30	<b>Gelajauziak - KUKAI</b>	Coliseoan	11 €
Martxoak 22, domeka	20.30	<b>III - MARICASTAÑA (unibertsitarioak)</b>	Coliseoan	5 €
Martxoak 24, martitzena	20.30	<b>La calma mágica - TANTTAKA TEATRO</b>	Coliseoan	11 €
Martxoak 25, eguaztena	20.30	<b>Barealdi magikoa - TANTTAKA TEATROA</b>	Coliseoan	11 € euskeraz

## SARREREN AURRE-SALMENTA



Coliseo antzokiko sarreran asteburu honetan hasiko dan aurre-salmentan: zapatuan (hillaren 7xan) goizeko 10.00etatik 16.00etara salduko dittue funziño guztietarako sarrerak; eta domekan (8xan) eta astelehenian (9xan), barriz, 10.00etatik 14.00ara. Horrez gain, interneten [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) helbidian be eskuratu leikez.

media batekin etorriko jaku; Txalo Produzioak Jose Ramon Soroz eta Iker Galartza bikotia ekarriko desku beste komedia batian, "arrakastia segurtatuta dakan lan batekin" Ortegaren eritxian, eta bikain zaindutako euskeriarekin; eta Tanttaka Teatra tragikomedia bat aurkeztu-

ko desku, Arkaitz Cano idazliak moldatutakua, eta Sandra Ferrús, Mireia Gabilondo, Aitziber Gamendia, Aitor Marzo eta Iñaki Rikartek protagonizatutakua. Azken lan hau gazteleraz ikusteko aukeria izango da bezperan eta hurrengo egunekua Korrika Kulturalaren barruko programazi-

ñuan juango da. Ohikua denez, badago beste emonaldi bat be Emakumiaren Nazioarteko Egunaren inguruko programaziñuarekin eskinduko dana: hori Nuria Gonzalez aktoriak Candelaria Sur konpaiñiarantzako egindako "Taitantos" monologua izango da.

Coliseoak protagonismo berezixa hartuko dau, bertan egingo dira-eta 16 funziño; Hezkuntza Esparruan, bestalde, bost lan aurkeztuko dira. Bittan egongo diran lanen artian, Pentación konpaiñiako "De mutuo acuerdo" dogu, Toni Acosta eta Iñaki Miramonekin. Halanda be, eta antolatzailliak aurreratutakuaren arabera, "Misántropo"-k dakan

arrakastia haundixarekin eta lau maguen "La Mejor Magia"-ren oihartzunaren aurrin, "leikienda da bi kasu horretan be bigarren funziño bat egotia". "La gloria de mi mare" izan leike ezustekuetako bat, "horko antzerkixa, dantza eta musika flamenkuaren nahasketatik emaitza ikusgarrixa lortzen dabelako". Gaurkotasunarekin lotuta, Bárcenasen deklaraziñuak be tartia izango dabe Jardunaldixotan.



*Txalo Produzioak "Erdibana" arrakastia handiko lana erakutsiko dau Coliseoan martxuaren 17xan, Soroz eta Galartza antzezle ospetsuekin.*



*Teatro del Templek eskainiko daben "El Cascanueces" lanian haur antzerkixa, dantza eta txotxongilluak nahastuko dira. Funtziño hori martxuaren 14an eskinduko dabe.*

20 URTEZ BERTSO-PAPER LEHIAKETA ANTOLATZEN

867 BAZKIDE

...eta kitto!  
ko bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkartea  
Urkizu 11, solairuartera. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18  
[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

- urteko kuota
- 16 urtetik behera  
**5 euro**
  - Lanean dihardut  
**45 euro**
  - Langabea, ikaslea, jubilatua, etxeoandrea  
**15 euro**
  - Borondatez, diru gehiago eman nahi dut  
..... **euro**

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_  
Helbidea: \_\_\_\_\_ Herria: \_\_\_\_\_  
Telefonoa: \_\_\_\_\_ e-maila: \_\_\_\_\_  
Lanbidea: \_\_\_\_\_ Jaiotze data: \_\_\_\_\_  
Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_\_

## Eibarrek gaur jokatuko du A Coruñako Riazorren

Arratsaldeko 20.45etan hasiko da gaur Riazorren A Coruñako Depor eta Eibar FT-ren arteko norgehiagoka. Galiziarrak lehenak izan ziren denboraldi honetan Ipuruan irabazten eta Garitanoren mutilek "mendeku" hartzeko gogoz joango dira, gaur egun Victor Fernandezek prestatzen dituztenekiko sei puntuko alde horrekin jarraitzeko gutxienez. Atzealdean hainbat aldaketa egin beharko ditu Garitanok, Abrahamek eta Lillok bosgarren txartela jaso eta partidu bateko zigorra izango dutelako. Boveda hamaikakora bueltatzen bada, Añibarro eta Raul Navasekin litekeena da Didac Vilák jo-

katzea beste hegalean. Manu del Moralek, bestalde, hilabete bat beharko du gutxienez zelaietara itzultzeko.

### Ipuruako zelaia konpontzen

Atletico de Madril-en aurkako partiduan zelaia erakutsitako egoera ikusita, Eibar FT-ko arduradunek beharrezkoa ikusi dute aldatzea eta martitzenean bertan hasi ziren zohiak erabiliz 6.760 metro karratuak ezartzen. Aurreko soropila 2013ko abuztuan ipini zuten, hau da, 17 hilabeteko iraupena izan du. Oraingo honetan Vila Nova de Milfontes Portugalgo herritik ekarri dute zelaia.



Dani Garcia berriro itzuliko da taldera, partidu bateko zigorra beteta.



## Irati Yarza gimnasta liderra aldearekin senior plus mailan


Ipurua kiroldegian aurreko zapatuan jokatutako amateur txapelketako lehen fasean, Ipurua Klubak bi talde aurkeztu zituen, banakako 14 ariketekin batera. Jubenil A taldeak bost pare mazakin egin zuen lana eta kadete B-ko boskoteak hiru uztai eta hiru pelotekin jardun zuen: biak ere 3. postuan sailkatu ziren euren mailetan. Banakakoan, bestalde, Irati Yarza nabarmendu zen, senior plus mailan bigarrenari bost puntu aterata, eta izan ziren bikain jardun zuten beste gimnasta batzuk ere: Irene Perez

onena izan zen jubenil A mailan, Enara Zufiria moduan kadete B mailan; Maialen Oregi bigarren sailkatu zen jubenil B-n, Arrate Barojak kadete A-n lortutako postu berean; Lorea Armendariz hirugarrena izan zen jubenil A mailan...

Asteburu honetan eskola mailakoen hitzordua izango da: bihar Bergaran alebin B mailako taldea lehiatuko da, benjamin mailako beste 15 neskatilekin batera. Eta domekan alebin A mailako bi taldek eta infantil A mailakoak lehiatuko dute.

## Deporreko Mendi Batzordeak bi txango egingo ditu otsailean

Zapatu honetarako Makean hasi eta toki berean amaituko den mendi irteera antolatu du Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak; tartean 896 metroko Baigura mendira igoko dute. Eta, hemendik hamabostera, Urbasatik Lizarrara joango dira, Baitza (1.182 m.) gaina gaudituta. Aurreko zapatuan Andoaindik Hernanira joan ziren, Adarra menditik pasatuta sagardotegian amaitzeko. Hurrengo hilabetean, bestalde, 7/8ko asteburuan eskalada ikastaroa eta irteera egingo dute San Fauston, 14an ardo eta arraon bidea egingo dute Oionetik Biasteriraino, eta 28an Anguianotik Valvanerara joango dira, Pico La Rioja (1.562 m.) zeharkatuz. Horrelako txangoetan parte hartzeko, Deporreko bulegoetan eman daiteke izena martitzen eta eguenetan, 19.30etatik 20.30etara, edo 943-201904 telefono zenbakira deituta.



## Ermuko duatloia jokatuko da bihar arratsaldean

Denboraldiko Euskadiko duatloi zirkuitoko lehenengo proba jokatuko da bihar, 16.00etan hasita, Ermuan. Herri horretako seigarren edizioan jokoan izango da, gainera, Bizkaiko duatloi sprint txapela. Irteera, helmuga eta boxeak Cardenal Orbe plazan kokatuko dira eta hor egingo diote antxintxiketan 5 kilometro betetzeari, trantsizio hori amaituta 20 kilometroko bizikleta saioa egiteko eta, helmugara iritsi aurretik, azken ataleko oinezko lasterketak 2,5 kilometro izango ditu.



## Herriko triatletak bikain neguko triatloiko Europako txapelketan

Bikain baino bikainago, eibartarrek hiru domina eskuratu zituzten-eta Reinosan jokatuak neguko triatloiko Europako txapelketan. Pello Osorok txapela jantzi zuen 23 urtetik azpikoen mailan, Txomin haren anaiak zilarra eskuratu zuen juniorretan eta Edu Oiarzun beterano 2 mailan Europako hirugarrena izan zen. Proba osoa elurpeko baldintza gogorretan egin zen; izan ere, proba bertan behera lagatzekotan izan ziren.



*Txomin Osoro bigarrena izan zen juniorretan.*



## Urbateko bikotea Espainiako igeriketa txapelketan

Ander Izagirre eta Maialen Barruetabeña Castellón jokatuak komunitate erkidegoen arteko Espainiako txapelketan izan ziren aurreko asteburuan eta hor 7. postuarekin konformatu behar izan zuten, Madril, Andaluzia eta Galizia podiumean izan zituen norgehiagokan. Barruetabeña Espainiako txapelketan parte hartzeko marka lortu zuen 200 bizkarreko proban eta Izagirre bere denbora onenetik gertu ibili zen. Asteburu honetan neguko Gipuzkoako txapelketan izango dira gure herriko igerilariak.

## Euskal Herriko Itzulia Arraten amaituko da apirilaren 9an

Ohikoari jarraituta, aurten ere Euskal Herriko Itzuliaren etapa bat Arraten amaituko da eta hurrengo eguneko Eibarren hasiko. Aste Santua pasata, hurrengo astean jokatu da probaren 55. edizioa, urtero moduan sei etapetan banatuta. Apirilaren 6koa Bilbon hasi eta Bilbon amaituko da, bigarrenak Bilbotik Gasteizera eramango du tropela, hirugarrenak Gasteizetik Zumarragara, apirilaren 9koak Zumarragatik Arratera egingo du (Udana, Asentzio, Karabieta, Ixua eta San Migueletek pasata), 10ekoa Eibarren hasiko da Aiaraino joateko (irten eta berehala Kalbario igotzeko), eta seigarren eta azken etapan erloju kontrako 18 kilometroak beteko dituzte txirindulariek.



## Debabarrenak elite eta 23 urtetik azpiko taldea aterako du

Aurreko denboraldiaren amaieran Eibarko Klub Deportiboko txirindularitza batzordeak aske laga zituen taldeko txirindulari guztiak beste talde batzuekin fitzatzeko eta, horrela, 20 urteko ibilbidearekin amaitu zuen. Baina Federazioaren arduradunekin txirindularitza babestean inguruan hitz egin eta gero, beste saiakera bat egingo du azken orduan elite-suk 23 mailako taldea osatuta. Talde hori 16 txirindularik osatuko dute (euretako bost Eibarkoak), Debabarrena deituko da, Debegeak lagunduko du eta CDR Bizikleten babesia izango du.

## motzean

### PILOTA

Eibarko Klub Deportiboko pilotarietako bikoitzari egingo diote aurre asteburuan: gaur, 19.15etan, senior lehen mailako partidua jokatu da Astelena frontoian Eibar eta Billabonaren artean; eta bihar, 16.30etan, jubenetako Eibar eta Zestoako pilotarietako neurtuko dituzte indarrak. Udaberri torneo horretan, Eibarko jubenilak 1. postuan daude bigarren eta hirugarren mailatan. Infantiletan eta seniorretan azken postuetatik ihes egiteko borrokan dihardute.



### SASKIBALOA

Katu Kalek bere historiako lorpen handienetakoa eskuratu zuen aurreko zapatuan Zarautz laugarren sailkatuari 51-42 irabazita. Eraitza horrekin, eibartarrek probintziako 2. mailara igotzeko parte hartzeko txartela eskuratu dute, ziurtatuta baitute sailkapeneko hirugarren postua. Urte berriarekin asko hobetu da taldearen joko eta itxaropenez egingo diote aurre igoera faseari. Aldi berean, taldeak deia egiten dute saskibaloian jokatzeko interesa duten euren entrenamendu saioetara joateko: martitzen eta eguenean, 20.00etatik aurrera, Kirodegiko pista berdean.



## Herriz Herri rallyetako sariak

Aurten Eibarko Klub Deportiboak antolatu duen Herriz Herri rallyen txapelketako sarituek barixakuan jaso zituzten sariak Portalean. Orotara hamabi rally egin ziren iaz (Azpeitian, Zarautzen, Eibarren, Barakaldon, Legazpin, Zumaian, Ataunen, Donostian, Sorluzen eta Irunen), hamar kolektiboren eskutik eta, parte hartu zuten 251 lagunetatik 32 saria jasotzeko aukeratu eta gero, azkenean epaimahaiak hauek saritu ditu: Carlos de Cos, Iñaki Etxenagusia, Jose Luis Rodriguez, Iñaki Piñero, Juan Ramon Llavori, Iñigo Korta, Alex Garai, Carlos Mediavilla, Imanol Manterola eta Jose Antonio Fernandez.



## Korrika 19 Eibarren

Martxoaren 23an ailegatuko da Korrika Eibarrera, Ermua zeharkatu eta jarraian, arratsaldeko bostak aldera. Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere Korrika batzordea eratuko da Eibarren, egun horretako lanak prestatzeko. Batzordea eratzeko lehen bilerak datorren astelehenean egingo da, 18.30etan AEK euskaltegian eta laguntzeko prest daudenei bilerara agertzeko eskatu nahi diete antolatzaileek. Bestalde, 19. Korrika Kulturalaren harira eskualdeko historia ezagutzeko Karakate-Irukurutzetara mendi irteera antolatu da martxoaren 7rako. Informazio gehiagorako edo izena emateko eibar@ae.org helbidera idatzi edo 943201379 telefonora deitu daiteke.

## Logotipo proposamenak Topalekuan

Arrate Kultur Elkarteko logotipo lehiaketara aurkeztu diren lan guztiekin erakusketa inauguratu zuten aurreko barixakuan Topalekuan. Otsailaren 15era arte egunero zabalduko dute, 19.00etatik 21.00etara. Arrate Kultur Elkarteko logotipo berria elkarteko bazkideek aukeratu dute, erakusketan ikusgai daudenen artean gehien gustatzen zaienari botua emanda eta irabazlea, berriz, otsaila amaieran egingo duten urteko batzarrean berretsiko dela iragarri dute.



...eta kitto! 15/II/6 • 918 zkia.

## Gilda-lehiaketa martxan da

...eta kitto! Euskara Elkarteak I. Gilda-lehiaketa antolatu du, Euskeraz primeran! kanpainan diharduten tabernen artean. Martxoaren 5ean eta 6an egingo den lehiaketara, taberna bakoitzak gilda bat aurkeztu ahal izango du, eta txartel bidez identifikatuko du lehiaketako gilda dela. Otsaila amaieran lehiaketan parte hartuko duten gilden katalogoa banatuko du ...eta kitto!-k tabernetan, jendeak jakin dezan zein tabernek hartuko duten parte eta zein gildarekin. Gildak euro baten salduko dira. Sari bi izango dira, alde batetik epaimahaiarena (150 euro) eta herritarrena bestea (150 euro). Lehiaketan jardungo duten tabernetan bozketarako kutxak eta paperak egongo dira, bezeroek euren botua eman dezaten. Epaia martxoaren 12an jakinaraziko da.



## Gatxizenen proposamenak, 15era arte

Otsailaren 15era arte onartuko dituzte Eibarko gatxizenen lehiaketarako proposamenak. Lehiaketa Udal euskaltegiak eta AEK-k antolatu dute, udalarekin lankidetzan eta parte hartu nahi dutenei Antxon Narbaizaren "Eibarko gatxizenak" liburua erabiltzea gomendatzen diete, lan horretan gatxizen zerrenda luzea dago eta. Proposamenak zuzenean euskaltegiara zein Juan San Martin liburutegira eraman daitezke edo, bestela, euskaltegia@eibar.net edota eibar@ae.org helbideetara mezua idatzita bidali.



## Photoshop CS6 ikastaroa

Klub Deportiboak antolatuta, Juan Antonio Palacios-ek "Photoshop CS6" ikastaroa emango du martxoaren 5etik 26ra, astelehen, eguazten eta eguenetan 19.00etatik 21.00etara. Edukiak zerotik ematen hasiko da eta klaseak Portalean izango dira (3. pisuan). Gehienez hamasei lagun onartuko dituzte eta ikastaroaren prezioa 60 eurokoa izango da Deporreko bazkideentzat (80 eurokoa besteentzat). Informazioa eskatzeko edo izena emateko palaciosgar@gmail.com helbidera idatzi.



## Kontzertua Koskor tabernan

Gaur gauerditik aurrera Franz Detour abeslari arrasatearrak kontzertua emango du Koskor tabernan. Gaurko zuzeneko emanaldian "The Butcher's Son", Franz Detour izenarekin 2014. urtean kaleratu zuen lehen laneko kantak aurkeztuko ditu, aurtengo ekainean argitara emango duen hurrengo diskoa osatuko duten beste batzuekin batera. Abeslariak rock independentea egiten du eta musikagintzan ibilbidea luzea dauka, 1992. urteaz geroztik Dorian Gray, Floyd The Barber, Undertow eta Pure Man Engine taldeekin jardun du eta.



## Musikari gazteen emanaldiak

Gaur 20.30etan Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleen piano eta gitara jaialdia egingo da Coliseoan. Casilda Txurruka eta Ana Maria Caballero irakasleek zuzenduko dute lehen aldiz instrumentu biak elkartuko dituen kontzertua eta sarrerak bost euro balio du. Eta domekan, 12.30etan, hilaren azken egunean Andoainen egingo den X. Piano Jaialdian lehiatuko diren Eibarko pianojole gazteek kontzertua emango dute. Emanaldi horretarako sarrerak hiru euro balio du.



## Argazkiak tabernetan

Otsailaren 28ra arte Jose Ignacio de Castro eta J.I. Aizpurua, Klub Deportiboko Argazki Taldeko kideen argazkiak ikusgai egongo dira, Castorenak El Ambigu tabernan eta Aizpuruarenak, berriz, Portalea tabernan.



## laburrak

### EUSKERAREN AGENDA

Udalak gure herrian euskeraz egingo diren ekitaldi guztien inguruko informazioa "Eibarko euskararen agendan" pilatu du. Bere webgunean (eibar.eus) kontsultatu daitekeen agendan, besteak beste, hil honetan euskeraz eskainiko diren hitzaldi, ikastaro eta ikuskizunak noiz eta non izango diren ikus daitezke.



### ARATOSTE-LEHIAKETA

Udaleko Kultura Batzordeak jaiak girotzeko asmoz antolatutako duen "Aratosteetan dotoreen jarritako taberna" lehiaketan parte hartu nahi duenak datorren asterako, otsailaren 12rako eman beharko du izena Pegoran.



Gure artean egon ez arren,  
izarretara begiratu eta  
bertan aurkituko zaitugu  
Bella, gure printzesa  
Betirako gure bihotzetan



eitek  
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka  
onenetako  
Zerbitzu  
Tekniko onena



[www.eitek.net](http://www.eitek.net)

## Santa eskean ...eta kitto!-rekin

Eguraldi txarrari aurre eginez, talde politak egin zuen bat, Santa Ageda bezperan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako santa eskearekin. Ibarkurutzen elkartu eta Urkizu alderaino joan ziren kalejiran, Santa Agedako koplak

abestuz. ...eta kitto!-n amaitu zuten santa eskea, kaleko hotzari aurre egiteko txokolate beroa eta mokadutxoak janez. Aurreko asteko entseguak eman zituen fruituak, bikain jardun zuten-eta kalejiran irten zirenek.



Taldeko gazteenak Ibarkurutzeko iturrian. SILBIA HERNANDEZ

## Iñigo Aranbarri Harixa Emoten

**Apirila** liburua hizpide, Harixa Emoten literatur tertulian izan zen **idazle azkoitiarra** Portalean. XVIII. mendean, Azpeitia-Azkoitia eta inguruko herrietan, artoa eta gariaren prezioa zela-eta izandako matxinada da liburuaren ardatza, eta artxibo-lan handia egin du Aranbarri liburuan hori guztia jasotzeko. Martxoan Ur Apalategiren "Fikzioaren izterrak" liburuaren txanda izango da.



## Ezti-dastaketarako izen-ematea zabalik

Eguaztenean zabaldu zen ezti-dastaketako saioan izena emateko epea. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu duen saioa otsailaren 24an izango da, arratsaldeko 19.00etan, ...eta kitto!-n. Erle Mundua-ko Aitor Zabalak emango duen saioan izena emateko azkeneko eguna otsailaren 18a izango da, eta 5 euro balio du (4,50 euro bazkide eta berbalagunentzat).



## Kokein-en 15 urteak ospatzen

Aurreko asteko asteburuan sorpresa ederra hartu zuten Kokein-ekoek, taldeak 15 urte bete dituela ospatzeko, lagunek ezer esan barik Ez Dok tabernan jaia antolatu zieten eta. Gainera, tabernaren beheko pisuan bat egin zuten lagun artean beste musikari batzuk zeudenez, jaiaren harira kontzertu bikaina eman zuten denen artean eta, hasierako ezustea gaindituta, gaua ondo baino hobeto eman zuten. Zorionak Kokein, urte askotarako!



## hildakoak

- Sabino Gabilondo Alzibar. 83 urte. 2015-I-28.
- Maria Etxaburu Larrañaga. 97 urte. 2015-I-29.
- Arrate Zenarruzabeitia Jauregi. 57 urte. 2015-I-29.
- Carmen Amillategi Kareaga. 84 urte. 2015-I-29.
- Alfonso Etxeberria Valdivieso. 85 urte. 2015-I-30.
- Jose Luis Meruelo Sañudo. 81 urte. 2015-II-3.
- Abilio Izquierdo Bustamante. 90 urte. 2015-II-4.
- Josefa Baskaran Azpitarte. 79 urte. 2015-II-4.

## jaiotakoak

- Tamara Tinoco Cruz. 2015-I-21.
- Aner Lozano Castelo. 2015-I-26.
- Priyebat Basnet. 2015-I-28.
- Jainaba Ndong. 2015-I-31.

**Izadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA SER  
104,0 FM

**ITZULPEN**  
ERA GUZTIETAKO TESTUAK  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelarrera,  
gaztelerratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.

**ZERBITZUA**  
elkartea@etakitto.com

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, OIHANA, atzo urtetxua egin zenduan-eta. Segi gure pitxintxu izaten! Aitaxto eta amatxoren partez.



Zorionak, IKER, bixar zure lehelengo urtetxua egingo dozu-eta. Muxu haundi bat aitaxto, amatxo eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LIBE, gure poxpoliñak hillaren 10ian urtebete egingo dau-eta. Patxo haundi bat danon eta, batez be, Anerren partez.



Zorionak, XABAT Magunazelaia Telleria, eguenian urtia beteko dozu-eta. Patxo haundi bat aitxitxa, amama eta famelixaren partez.



Zorionak, EKAIN, gaur zortzi urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Hiart-en partez.



Zorionak, AIMAR Blanco Gantxegi, gure pototo, bixar urtebete egingo dozu-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ANE, bixar zazpi urte beteko dozuzelako. Muxu potolo bat Malen eta famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, atzo zazpi urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GARI, maittaa, atzo sei urte bete zenduaz-en-eta. Laztan potolo bat, mutil haundi!!!



Zorionak, IGOR, hillaren 2xan 7 urte bete zenduaz-en-eta. Muxu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LARRAITZ, gure printzesak gaur bederatz urte betetzen dittu-eta. Etxeko danon partetik.



Zorionak, UNAI, gaur 10 urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Izaroren partez.



Zorionak, NICOLA eta SUA!, domekan bederatz urte beteko dozuez-eta. Muxu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ARITZ eta AMATXO. Ondo pasa zuen egunian. Etxekuen partez.



Zorionak, LIBE, astelehenian zazpi urte egingo dozuzelako. Etxekuen partez.



Zorionak, JULEN, gaur bost urte betetzen dozuzelako. Etxekuen partez.



Ongi etorri, primita UXUE. Patxo potolo bat famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, ANER, hillaren 1etik gure artian zagoz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, atzo urtetxua egin zenduan-eta. Laztan haundi bat etxekuen eta, batez be, Unairen partez.

## zinea Coliseoan

**(1 ARETOAN)**  
**7an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**8an: 17.00**  
**(ANTZOKIAN)**  
**8an: 19.45, 20.00**  
**9an: 20.30**

**"El destino de Jupiter"**  
 Zuzendaria: Andy Wachovski



**(1 ARETOAN)**  
**8an: 20.00**  
**9an: 20.30**

**"Magia a la luz de la luna"**  
 Zuzendaria: Woody Allen



**(2 ARETOAN)**  
**7an: 22.30**  
**8an: 17.00, 20.00**  
**9an: 20.30**

**"The imitation game"**  
 Zuzendaria: Morten Tyldum



**(2 ARETOAN)**  
**7an: 17.00 (gaztelera)**  
**(ANTZOKIAN)**  
**8an: 17.00 (euskeraz)**

**"Stand by me Doraemon"**  
 Zuzendaria: Takash Yarnazaki



## BARIXAKUA 6

### GAZTELEKUA

**17.00.** "Aratosteak prestatzen... gaztelekua apaindu!". Indianokuan.

### HITZALDIA

**19.00.** "Euskal Herriko egoera politikoa", Jokin Bildarratz Tolosako alkate ohi eta EAJko senadorearen eskutik. Batzokian.

### KONTZERTUA

**20.30.** J.B. Gisasola  
Musika Eskolako Piano eta Gitara jaialdia. 5 euro. Coliseoan.

### KONTZERTUA

**00.00.** Franz Detour abeslari arrasatearraren kontzertua. Koskor-en.

## ZAPATUA 7

### KOKO-DANTZAK

**08.30.** Koko-marru eta koko-dantzarien lehen agerraldia. Merkatu Plazan.

**09.00/18.00.** Koko-dantzak eta koko-eskea Otaola-Kiñarra aldeko baserrietan.

**19.00/21.00.** Kalejira eta koko-dantzak, Mauxitxa txarangarekin. T. Etxebarria, Untzaga eta Calbetonen.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**10.00/16.00.** 38. Antzerki Jardunaldietarako sarreren aurrealmenta. Coliseoan.

### ESTETIKA AZOKA

**10.30/20.00.** Estetika Azoka. Untzagan (karpan).

### GAZTELEKUA

**17.00.** "Aratosteak prestatzen... gaztelekua apaindu!". Indianokuan.

### UMEENDAKO TAILERRA

**17.30.** Aratoste kareta egiteko, 3-12 urtekoendako. El Corte Inglesean.

### KALEJIRA

**19.45.** Kaleetan Kantuz abesbatzaren eta Eibarko Musika eskolako musikarien hileroko kalejira. Ego Gainetik hasita (El Corte Inglesean).

### KONTZERTUA

**22.00.** Eñaut Elorrietaren kontzertua, "Deserriko kantak" diskoa aurkezteko. 10 euro. Coliseoan.

## DOMEKA 8

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**10.00/14.00.** 38. Antzerki Jardunaldietarako sarreren aurrealmenta. Coliseoan.

### ESTETIKA AZOKA

**10.30/14.00.** Estetika Azoka. Untzagan (karpan).

### PIANO JAIALDIA

**12.30.** Andoaingo X. Piano Jaialdira joango diren Eibarko piano ikasleen emanaldia. 3 euro. Coliseoan.

### GAZTELEKUA

**17.00.** "Aratosteak prestatzen... gaztelekua apaindu!". Play / Wii. Indianokuan.

## ASTELEHENA 9

### EKINTZAILE-TAILERRA

**09.30-12.30.** Jardunaldia: "Nola sortu zure negozio-idea".

**12.30-13.30.** "Frankiziak, negozioen eskualdatzeak". Portalean.

### IKASTEN

**10.00.** "Izarrei begira" topaketa. Beheko Tokian.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**10.00/14.00.** 38. Antzerki Jardunaldietarako sarreren aurrealmenta. Coliseoan.

### KORRIKA 19

**18.30.** Eibarko Korrika batzordea eratzeko bilera irekia. AEK euskaltegian.

### BILERA

**19.00.** Eibar "Zaharren hiri lagun" onartzeko topaketa irekia. Untzagako jubilatuetxean.

## MARTITZENA 10

### IKASTEN

**10.00.** "Zuzenbide internazionala" hitzaldia, Juanjo Alvarezen eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASENPRESA

**10.30/13.30.** Ikasentzako azoka. Untzagan.

### JOSKINTZA TAILERRA

**17.00 eta 18.30.** Portalean.

### GURASOAK MARTXAN

**18.30.** "Abordar los conflictos en la familia" hitzaldia, LH-ko ikasleen gurasoentzat. Arrateko Andra Mari ikastetxean.

### HITZALDIA

**19.00.** "Evitables. Doce muertes diarias por Hepatitis C". Hizlariak: Mario Cortes eta Angeles Fernandez (Kaltetuen Plataformako kideak). Moderatzailea: J. Sanchez Vallejo. Portalean.

## EGUAZTENA 11

### IKASTEN

**10.11.** Ibilaldia: Axpe-Apata-Elorrio ibilbiderako trena. Estaziñoan.

### BILERA

**11.30.** "Huellas" proiektuaren 3. bilera. Untzagako jubilatuetxean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

## EGUENA 12

### EKINTZAILE-TAILERRA

**09.30/13.30.** Jardunaldia: "Canvas eredu". Deskubritu zure negozio eredu". Portalean.

### IKASTEN

**10.00.** "Zine-hizkuntza 2" hitzaldia, Pedro Saldañaren eskutik. Armeria Eskolan.

### EGUEN ZURI

**15.30.** Ikastetxeko taldeen kalejirak.

**17.00.** Kalejira Jainaga eta Narbaizarekin, Urkizutik.

**17.00.** Dantzaldia Lisker taldearekin.

**17.00/19.00.** Umeendako tailerrak (ipuinetakoko pertsonaien kareta makillajea eta osagarriak), Astixaren eskutik. Untzagan.

### KALERATZEAK STOP

**19.00.** Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Ahalegindu zaitze samurragoa izaten. Aldamenekoek eskertuko dute, azken aldiaren batez ere zakarregia zaudelako.

### TAURUS

Aspaldiko gorrotoek traba egiten dizute gaur egungo harremanetan. Ahaztu egin beharko zenituzke kontu zahar horiek.

### GEMINI

Zure atzetik dabilen horren besoetan eroriko zara. Orain gogor egiten diozu, baina azkenean bigunduko zara.

### CANCER

Datozen egunotan estresa izango duzu etsairik nagusia. Ez da erraza gauzak lasaigaitz hartzea, baina ahalegindu.

### LEO

Lasai! Laster pasatuko zaizkizu egunotan dituzun tristura eta nekea. Baina besteek baino denbora gehiago beharko duzu.

### VIRGO

Asteburu bikaina duzu aurretik. Borobil irtengo zaizu "mimoz" antolatutako hori. Dena kontrolatuta duzula dirudi.

### LIBRA

Sasoi honetan balantzea egiteko ordua da. Ahaztu onak izan ez diren oneak eta heldu gogor merezi izan dutenei.

### SCORPIUS

Hori da nerbio! Ezin zara geldirik egon. Danari baietz esan behar hori... Hobe duzu erlaxatu eta zure burua zaintzea.

### SAGITTARIUS

Non arraio zaude? Jaitsi lurrera, gauza mordoak galtzen ari zara-eta. Itxuraz ere hobetuko bazenu hobe, estralurtar hori!

### CAPRICORNIUS


Eskaini denbora aisialdiari. Lanak irentsi egingo zaitu eta hori ez da txantxa. Lanerako bakarrik bizi zarela dirudi.

### AQUARIUS

Agenda topera duzu: benetan uste duzu apuntatutako guztiak merezi dutela? Egin nahi duzuna, baina mareatu barik.

### PISCIS

Espero duzun oparia jasoko baduzu ere, poztasun handiena aspaldian ikusi ez duzun lagun batek emango dizu.



## erakusketak

- ✓ **Otsailaren 8ra arte**  
 "EIBAR K.E. / 75. URTEURRENA" erakusketa.  
 Portalean.  
**MARTIN UNANUE AÑIBARROREN** "Uraren esker onari mandalak" erakusketa.  
 Untzagako Jubilatua Etxean.
- ✓ **Otsailaren 15era arte**  
**ARRATE KULTUR ELKARTEAREN LOGOTIPO** lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Otsailaren 28ra arte**  
**J.I. AIZPURIAREN** argazki erakusketa.  
 Portalea tabernan.  
**JOSE IGNACIO DE CASTROREN** argazki erakusketa. *El Ambigun.*
- ✓ **Martxoaren 1era arte**  
**JOSEBA ARGINZONIZ-EN** erakusketa.  
 El Corte Inglesean.
- ✓ **Martxoaren 29ra arte**  
 "EIBAR INDUSTRIALA 2014" erakusketa.  
 Armagintzaren Museoa (Portalean).

## lehiaketak

- ✓ **Umeendako koko-jantzi lehiaketa**  
**Otsailaren 13an** (Aratoste Zapatuan), 17.30etan, El Corte Inglesean. Izen-ematea: Merkataritza zentruko liburu sailean.
- ✓ **Aratosteetako play-back lehiaketa**  
 LH-ko 5. eta 6. mailako ikasleentzat. **Otsailaren 15ean** (Aratoste Domeka), 17.00etan, Untzagan. Izen-ematea: Ikastetxeetan. **Azken eguna: otsailaren 9a** (astelehena).
- ✓ **Eibarko Gatzizenen Lehiaketa**  
**Otsailaren 15era arte**, Udal Euskaltegian, AEK-n edo liburutegian; posta elektronikoz euskaltegia @eibar.net / eibar@aek.org Informazio gehiago: www.eibarko-euskara.com
- ✓ **Gilda-lehiaketa**  
 Euskeraz Primeran! kanpaina sartuta dauden tabernentzat. **Martxoaren 5ean eta 6an**. Izen-ematea: **Otsailaren 11ra arte**, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuarean) edo 943200918.
- ✓ **XVIII. Eguen Zuri argazki lehiaketa**  
**Martxoak 17ra arte** (19.00ak arte), Arrate Kultur Elkarte. Informazioa:943202299 edo arratekultu@gmail.com

## farmaziak

- ✓ **barixakua 6**  
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **zapatua 7**  
 EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **domeka 8**  
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **astelehena 9**  
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **martitzena 10**  
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguztina 11**  
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguna 12**  
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **barixakua 13**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

**GAUEZ BETI -2015EAN-Elorza (J. Gisasola, 18)**

## SUDOKUA

			4	9		3		
	1					2		
5			1					8
4				8		5		
			3	9		1	4	
			8		5			9
	6					3		7
			4					2
			2		4	6		

4	9	6	7	2	5	8	3	1
8	7	3	1	4	9	5	2	6
1	2	5	8	6	3	4	9	7
6	1	7	5	8	2	9	4	3
2	8	4	9	3	1	7	6	5
3	5	9	6	7	4	1	8	2
7	4	8	2	1	6	3	5	9
5	6	1	3	9	8	2	7	4
9	3	2	4	5	7	6	1	8

AURREKOEN EMAITZA

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa .....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia .....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak .....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.50, 19.50 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegunak eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13.

**DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde berria eta 2 komun. 5 horma-armairu eta trasteroa. Iggogailua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Argitsu. 130 m erabilgarri edo 156 m eraikiak. Tel. 626-203838 edo 699-495249.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. 450-500 eurotan. Tel. 634-458275.  
– Logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-153524.  
– Bikoteak, ume birekin, 3 gelako pisua hartuko luke Eibarren. Tel. 685-380585.  
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.  
– 3 logeletako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.  
– 1/2 logeleko pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-282203.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Furgoneta Fiat Ulysse salgai. 8 jarleku. 2001 urtekoa. Oso ondo zainduta. 2.500 euro, negoziagarriak. Tel. 678-906709.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Ilepaindegia traspasoan Eibarren. Tel. 637-528992.  
– Taberna traspasoan Eibarko erdialdean. Tel. 696-269154.

### 3.2. Errentan

– Bulegoa alokagai. Klase partikularrek emateko egokia. 30 m<sup>2</sup>. Merkea. Tel. 607-658356.  
– Marradun garaje plaza alokagai. Ardantzako geltoki ondoan, Handia. 75 euro. Tel. 647-952677.  
– Gazteentzat prestatutako lokala alokatzen dut. 18 urtetik gorakoentzat. 70 m<sup>2</sup>. Tel. 679-425467.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 638-544358.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 655-677035.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta dendarri jarduteko. Tel. 679-287081.  
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere) eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-852720.  
– Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 628-425421.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 631-705406.  
– Emakume arduratsua eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-454417.  
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia hainbat gremiotan. Gidatzeko baimen guztiak. Tel. 618-153524.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 672-442318.  
– Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko. Tel. 627-768684.  
– Emakumea eskaintzen edozein lan egiteko. Orduzabala. Tel. 631-975260.  
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 631-282203.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 603-683176.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-296596.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 671-258740.  
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko edo ilepaindegian lan egiteko. Disponibilitate osoa. Tel. 646-441190.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-765921.  
– Neska eskaintzen da soziedadek edo bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta ilepaindegia jarduteko. Tel. 688-394038.  
– Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko, nagusiak zaintzeko, ostalaritzan jarduteko... Tel. 943-175048.  
– Neska eibartarra eskaintzen da goizez administrazio lanak egiteko (esperientzia luzea) eta umeak eskolara eramane eta zaintzeko. 658-845081.  
– Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 636-841158.  
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko: nagusiak zaintzeko, ... Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-068463. Herminia.  
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia nagusiak zaintzen. Orduzabala. Tel. 657-481028. Felipe.  
– Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-532589.  
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 655-231059.  
– Neska eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko. Tel. 727-731386.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia. Tel. 682-277198.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Esperientzia. Tel. 697-754174.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-846244. Neira.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak eta mugikortasun arazoak dituztenak zaintzeko. Baita ospitaletan ere. Esperientzia garabi zerbitzuan. Tel. 600-005160.  
– Neska eskaintzen da etxeak eta bulegoak garbitzeko (esperientzia) eta umeak zaintzeko. Tel. 943-901793 eta 603-644854.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 631-534125.

### 4.2. Langile bila

– Soraluzeko Ufala tabernan jornada osorako kamarea/o behar da. Sukaldatzen jakitea baloratu da. Tel. 670-541347.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Irakasle partikularra behar da DBH 2. mailako ikaslearen etxean klaseak emateko. Tel. 666-449559.  
– Euskerazko irakaslea behar da LH 6. mailako ikaslearen etxean klaseak emateko. Tel. 669-293462.


### 5.2. Eskaintzak

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen arteko trukeak eta azterketa prestaketa (EO). Tel. 670-793312.  
– Lizentziatu euskalduna eskaintzen da klase partikularrek emateko eta umeak zaintzeko. Tel. 639-976232. Ane.  
– "Gantxiloa", "gantxilo tunisiarra" eta "wow gantxiloa" ikastaroak ematen ditut Itzamna akademian (Bitor Sarasketa). Zapatuetan, hamabostean behin (17.00etatik 19.00etara). Tel. 649-100185.  
– Ingeleseko klase partikularrek ematen dira, 4 urtetik aurrera. Talde mugatuak. Esperientzia EEBB-etan eta Euskal Herrian. Tel. 651-706303.  
– DBH eta Batxilergoko Matematikak etaberrako klaseak ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Beco hozkailua salgai. 1'38x0'58x0'55. Berrria, bakarrik hilabetez erabilia. Tel. 689-747774.  
– Eskuzko garabia, amesarekin, salgai. 250 euro. Tel. 616-533796 eta 943-752480.  
– 70. hamarkadako Fender Twin-Revers baluletoak amplifikadore salgai. Beste musika tresna batzuen salerosketa edo alokairua eta musikoentzako grabaketak. Tel. 665-732640.  
– Emaztegai soinekoa salgai. 40 tailakoa, Vintage modeloa. Tel. 619-163031.  
– Jose Kareaga pintorearen "Hayas de Arrate" koadroa saltzen dut. Tel. 619-163031.



## Hyundai i20 Berria Zabaldu zure begiak inspirazioari.

Mundua beste begi batzuekin begiratzan baduzu, inspiratzaileena oso gertu izango duzu. Ez zenuen espero eta bapatean barne espazio ikaragarria eta bere mailan inoiz ikusi gabeko material eta detaileak dituen bizitegia aurkituko dituzu. Auto trinko batean ekipamendu ezezagunak diren eguzki-sabai panoramikoaren eta errailez aldatzeko alerta sistemaren modukoak perspektiba berri bat agerraraziko dizute. Zabaldu zure begiak Hyundaiari eta ezustekoa espermentatu.

i20 Berria 9.950€-tik aurrera

www.hyundai.es



i20 Berria Gama: CO2 Emisioak  
(gr/km): 99-155. Kontsumo  
mistoa (l/100km): 3,8-6,7

i20 1.2 MPI (85CV) ESSENCE-rako Penintsula eta Balearrearako gomendatutako PVP-a (9.950€). BEZ, garrarioa, Matrikulazio zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantentze-eskaintza eta Gobernuaren PIVE Plana (Gobernuaren Pive Planaren baldintzak betetzeari lotuta) barne. Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatzeko duten bezero partikularrei aplikatzeko eskaintza, gutxienez 9.950€-ko zenbatekoan eta 60 hilabetez epean. Finantza entitatearen azterketa eta onespenerari lotutako finantziazioa. 2015/02/28ra arte balioko du eskaintza honek. Ikustarazitako modelo: i20 Style. Mantentze autoaren finantziarioi lotuta. Kontsultatu eskaintza eta mantentzeren baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioen sare ofizialean edo Hyundai.es helbidean

## OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPIZKOARAKO

WWW.OARSOCAR.COM

## ELGOIBAR Olaso Poligonoa, 17. 943 74 14 80

OIARTZUN  
943 49 48 30

1 Errepide Nazionala, 469 km.  
(Leroy Merlin-en ondoan)

BEASAIN  
943 80 40 54

1 Errepide Nazionala, 419 km.  
(Hotel Castilloren ondoan)

IRUN  
943 63 97 69

Juan Thalamas Labandibar, 43  
Behobiarako errepidea



## AURREMATRIKULA ZABALIK 2015-2016 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133  
943 121 698

www.lasalleeibar.com

**Otsailaren  
2tik 13ra**  
(biak barne)

**HAUR HEZKUNTZA  
LEHEN HEZKUNTZA  
eta DERRIGORREZKO BI-  
GARREN HEZKUNTZA**

**La Salle Isasi  
eta Azitain Ikastetxee-  
tan**



# Aurri matrikulak

Otsailaren  
2tik 12ra

HAUR ETA LH-KO  
IKASTETXEETAN

Otsailaren  
2tik 13ra

DBH-KO  
IKASTETXEETAN



MOGEL ISASI D.B.H. 943 20 30 94



ITZIO D.B.H. 943 70 22 89



AMAÑA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78

Ondo trebatuta,  
etorkizuna gurea da

Online aurrematrikula:  
[www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net)

Euskal Eskola  
Publikoa

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**2015-2016 IKASTURTEA**